

naturaldia

TOLOSA 2013 NATUR JARDUNALDIK



Araujo
y *[signature]*

Bizirik al daude gure ibaiak?

Apirilaren 18tik maiatzaren 11ra Tolosan
Maiatzaren 9an Errenterian
Maiatzaren 16an Donostian

Babesle nagusia:



www.4.gipuzkoa.net/MedioAmbiente/naturaldia/

Bizirik al daude gure ibaiak?

Gure lurraldeari joan den mendean zehar ezarri diogun desarrollismo prozesu biziak gure ibar gehienak eta kostaldeko lautadetak asko hondatzea ekarri du, espazio horietan baitira Gipuzkoako biztanle gehien bizilekua. Egia da azken hamarkadotan zehar ahalegin handia egin dugula gauzak hobetzeko, baina oraindik asko eta asko falta zaigu, gure ibai ekosistemak erabat leheneratzea lortzeko.

Gure ibaiak benetan duten balioak jabetzeko eta balio horretaz baliatzeko, ur garbia baino askoz gehiago baitira, egiten dugun lurraldearen erabilerean gainera ikuspegi integrala jorratu behar dugu, ibaiak sortzen diren arro osoan zehar. Nola tratatzen ditugun ibarrak eta ibaiertzak, nola kudeatzen ditugun gure basoak, zer isurtzen dugun zuzenean eta zeharka, zenbateko lur eremuak artifizialtzen eta iragazgaizten ditugun, zenbat oztopo gaindiezin jartzen dugun ibaietan bizitzarako aukera oro zapuztuz, nola babesten garen uholde arriskuaren aurrean, zenbat ur ateratzen eta pribatizatzen dugun... hauek guztiak gure ibaiak zaintzeko eta gure ibaiekin erlazioa izateko unean kontuan hartu beharreko gauzetako batzuk besterik ez dira. Bizirik nahi baititugu gure erreka eta ibaiak.

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua.



Micah Garen

Apirilak 18, osteguna
Aranburu jauregia - Tolosa - 19:30ean

Erakusketa: Ura, Ibaiak eta Herriak. (apirilaren 18tik maiatzaren 11ra)

“Ura, Ibaiak eta Herriak” erakusketa munduan uraren inguruan diren gatazketa giza profila eskaintzen digu. Erakusketa protagonistak zuzenean afektatuak dira, normalean gizartearentzat ikusezinak, gehienez ere estatistika huts bihurtuak. Beharbada ez dute “arrazoi” absolutua izango, ezta sarritan konplexuak diren arazoak “konponbi-dea” ere... Baina arazo horiek jasaten dituzte, ezin zuzenago gainera... Eta horregatik besterik ez bada ere, merezi dute guk ezagutzeko, eta esan nahi dugutena entzutea... Oinarri horren gainean, herritarren arteko eztabaida zabaltzea proposatzen dugu. “Ura, Ibaiak eta Herriak” honekin, azken batean, bihotzak hunkitu nahi ditugu, gogoak piztu eta borondateak konprometiarazi, paradoxa bada ere Ur Planetan, Planeta Urdinean jasaten ari garen uraren krisi globalaren aurrean...

Pedro Arrojo Agudo. Ura, Ibaiak eta Herriak-en zuzendaria.



Apirilak 19, ostirala
topo - Tolosa - 19:30ean

Hitzaldia: Uraren pribatizazioa: austeritatea ala negozioa?

Austeritatearen izenean arrazoizkoa izan daiteke bigarren etxebizitza saltzea, bizitzako oinarriko beharrak asetzearren; baina bizi garen etxea salarazten badigute, hori jada ez da austeritatea, baizik eta famili sabotajea. Hurrengo egunean etxea errentan hartu beharko diogu bezperan erosi ziganari, eta bera arduratuko da inbertsioaren amortizazioa guri kobratzeaz, irabazi ederra erantsita, noski... Ur eta saneamendu zerbitzuak austeritatearen izenean pribatizatzea da krisialditik atera beharrean are sakonago hondoratzen gaituen depredazio sozialaren fronteetako bat.

Hizlaria: Pedro Arrojo. Irakasle emeritua Zaragozako Unibertsitateko Análisi Ekonomikoaren Sailean.



Cédric Faimali

INAUGURAZIOA

Tolosa - EGITARAUA

Apirilak 22, astelehena
topo - Tolosa - 19:30ean

Hitzaldia: Ibaiak eta aldaketa globala. (euskara)

Ibaiak munduko dibertsitate handieneko ekosistemen artean daude, eta mehatxatuen artean halaber. Ingurumen aldaketa globalak ibaiak ere eragiten die, ura kentzen diegulako, eta ibilguak aldatzen, elikagai gehiegi metatzen, eta kutsatzen ditugulako; eta espezie exotikoen inbasioa ere gertatzen ari da, ibaiertzen okupazioarekin batera. Ondorioz, espezieak eta zerbitzu ekosistemikoak galtzen ari gara. Gure ibaiak kontserbatzeko eta leheneratzeko, gestio lan ausart eta irudimenez bete egin behar dugu.

Hizlaria: Arturo Eloseggi. Biologia katedraduna eta EHUko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko irakaslea.



Apirilak 23, asteartea
topo - Tolosa - 19:30ean

Mahai ingurua: Ibai biziak izateko erronkak - Ori ibaiaren artoa.

Asko dira ibai biziak izateko lortzeko gauditu beharreko erronkak. EHUren, URaren, Foru Aldundiaren eta Udalaren adituek erronka horietan zeharreko ibilbidea egingo dute, eta aztertu egingo dute, halaber, batez ere Oriaren arroan emaitza onak lortzeko denok dugun eginkizuna.

Hizlariak: Iñaki Antiguiedad. EHUko Hidrogeologia katedraduna. **Patxi Tamés.** Hidrogeologoa/Baliabide Hidrauliko eta Geoteknia Unitateko burua. GFA. **Iñaki Arrate.** Plangintza eta Berrikuntza Arduraduna/Uraren Euskal Agentzia. **Hasier De los Ríos.** Nekazaritzako Goi Mailako teknikaria. Ingurumeneko zinegotzia. Tolosako Udala.

Jaso bezate gure esker ona:
Tolosako Herri Elkarteak.



Jardunaldien aurkezlea: Juan Unzueta. TIZ-Tolosako Inquirumen Zentroko arduraduna.

Apirilak 24, asteazkena
topo - Tolosa - 19:30ean

Hitzaldia: Uraren xarma.

Ibaiak eta hezeguneak dira planetako ekosistema produktiboak, eta animalia eta landare espezie pila izugarria hartzen dute; hau da, biodibertsitate handikoak dira. Dibertsitate izugarri honek badu, ordea, tranpa beldurgarria, espezializazio maila altua zehazki. Uretako landareek eta animaliek ingurune horretan bizi izateko eboluzionatu dute. Gaur egun gure planetako ingurune hondatuenetako bat izaki, espezie asko eta asko atzera ari dira egiten, izugarri. Zorionez, produktibitate altuak aukera ematen du gauzak bizkor leheneratzeko, horretarako borondatea dagoenean behintzat.

Hizlaria: Jordi Sargatal. Naturalista. Empordàko Aiguamolls Natur Parkearen eta Territori e Paisatge Fundazioaren zuzendaria (1998-2009).



Cesar Rodriguez

Apirilak 25, osteguna
topo - Tolosa - 19:30ean

Hitzaldia: Ibai bizidunak.


Ibaiak paisaiaren arima dira, kulturak eta pertsonak integratzen dituen elementua betidanik. Horregatik, hain zuzen, Uraren eta Lurraldearen Kultura Berriaren mugimendua, pertsonak eta pertsonak bizi diren lurreko kultur, ekonomi eta natur balioak elkarrekin lotzen dituena. Ibai lurraldea suntsiturik, Espainian dagoeneko 100 km-tik gorako ibai bakarra dago suntsitu gabe, Almonte zehazki (Cáceres); aldiz, 500 herri inguru urpean geratu dira, gehienetan oso helburu partikularrak ezkatutu dituen “interes orokorraren” indarrez.

Hizlaria: Pedro Brufao. Cáceresko Zuzenbide Fakultateko irakaslea.



Errenteria - EGITARAUA

Maiatzak 9, osteguna
Reina Aretoa - 19:00etan.



Hitzaldia: Ibaiak eta aldaketa globala.

Hizlaria: Arturo Eloseggi. Biologia katedraduna eta EHUko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko irakaslea.



Donostia-San Sebastián -Aquarium AMAIERA HITZALDIA



Maiatzak 16, osteguna
Aquarium-19:30ean

Ura, baliabide baliotsu eta mugatua.

“Edward Wilson-ek, naturalista ospetsua bera, izena eta indarra eman zion beste batzuek lehenik dagoeneko aipatutako gauza bati: biologikoki ondo datozkigun gauzak maite ditugu, horregatik gustatzen zaigu natura. Sentimendu horri “biofilia” deitu zion. Biofilaren arloko adituek badakite gure elementu gustukoenetako bat, nagusia agian eguzkiarekin batera (hau ere ezinbestekoa baitugu), ura dela, eta hori ez dela gainera kasualitatea...” Horrelaxe hasten da **Miguel Delibes de Castro**, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Biologi Zientzietako doktore eta Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC) erakundearen ikerkuntza-irakaslearen hitzaldia. Miguel Delibes Doñanako Estazio Biologikoaren zuzendaria izan zen 12 urtez. Eta dagoeneko 3 hamarkada baino gehiago dira kontserbazio biologiko aditu garrantzitsuenetako eta iberiar zoologiaren inguruko derigorrezko erreferentzia dela.

Antolatzailea:



www.gestonatura.com